



Uniko



Peñi León, Aitor de Kintana, Maitane Goñi

Argiztapen-diseinua: David Alkorta

Eszenografia eta arropa diseinua: Ikerne Giménez

Musika-konposizioa: Bingen Mendizabal

Dramagintza eta Zuzendaritza: Iñaki Rikarte

Babesleak

Elama eta Teleko kidea

Jarraiguazu



Paul seme bakarra da, bere etxeko erregea, alegia. **Irati** arrebaren jaiotzaren ondorioz, maitea izateari uzteko beldur handia izango du, eta horrek familiaren egonkortasuna mehatxatuko du.

Úniko 6 urtetik gora dituzten edozeinentzako ikuskizuna da; haur batek bere anai-arreba jaiotzean izan dezakeen jeloskortasuna, eta horren eragina bere ingurunean, erakustea du helburu. Txotxongiloak eta antzerki errealista nahastuz, jeloskortasunari helduko diogu, eta aurrez aurre begiratuko dugu gaia umore-sena inoiz galdu gabe.

Paul, gurasoak, arreba Irati, amona, Paulen andereñoa, eta **Richi** (Paulen hartz-peluxea, bere kontzientziaren alter ego) igaroko dira antzeztokitik, familiako ikuskizuna eratuz. Haurrek zein helduek, guztiek hainbat egoera eta pertsonaiatan ikusi ahal izango dute bere burua.

Une atsegina izateko baliagarria izatea espero dugu eta, aldi berean, guztiok elkarbizitzari, hezkuntzari, autoestimuari, tristeziari, edo atxikimenduari buruz hausnartu ahal izango dugu.

